

URTAROAK

Honako ariketa hauek dituzu:

1. Hiztegia lantzen: urtaro bakoitzari berea
2. Hiztegia: deskribapenak osatu
3. Lotu oroitzapenak urtaroarekin – entzumena
4. Testuak osatu aukera egokiarekin – entzumena
5. Osatu aditz-laguntzaile zuzenarekin
6. Idatzi zure oroitzapenei buruz

URTAROAK

1- Hiztegia lantzen: urtaro bakoitzari berea

Urtaro bakoitzak ezaugarri bereziak ditu. Behean horietako batzuk dituzu. Sailkatu dagokien urtaroan. Hurrengo ariketan hitz horietako batzuk landuko dituzu.

| | NEGUA | UDAZKENA | UDABERRIA | UDA |
|---------------------------------|-------|----------|-----------|-----|
| Basoak hostoz beteta | | | | |
| Zelaiak lorez beteta | | | | |
| Bero handia egiteko garaia | | | | |
| Gereziak biltzeko garaia | | | | |
| Natura lorez eta kolorez beteta | | | | |
| Elurra mara-mara | | | | |
| Gaztainak biltzeko garaia | | | | |
| Kukuak jotzeko garaia | | | | |
| Egun laburrak eta ilunak | | | | |

2- HIZTEGIA: deskribapenak osatu

Irakurri urtaroen deskribapen hauek, eta osatu kasu bakoitzean hitz edo esapide egokiarekin. Testu honetan, aurreko ariketan atera diren zenbait hitz eta esapide ageri dira.

Oharra: ariketa egin aurretik, irakurri testu osoa, zein urtarori buruz ari den jakiteko.

1. **Urte-saioa:** udaberria. Nire urtarorik gogokoena da. Urte-sasoi honetan natura _____, eta jendea kolore biziko arropaz janzten da. Eguraldi _____ egiten du, sasoi honetan egunak lehenago argitzen du; eta horrek asko animatzen nau.
2. **Urte-saioa:** udazkena. Urtaro hau _____ edo mendiko koloreak ikusteko urte-saioa da. Natura koloretan ikusteko garaia da. Gure basoak sasoi honetan _____, eta kolore politak ikus daitezke: gorriak, horiak... kontraste polita da.
3. **Urte-saioa:** _____. Urteko sasoi honetan zuhaitzak eta zelaiak nahiko gris egoten dira. Eguna _____ da, baina garai ona da elurretan gozatzeko. Gainera, ni bizi naizen tokian, askotan elurra _____ egiten du, eta etxe-inguruak zuri-zuri egoten dira.
4. **Urte-saioa:** _____. Ni piztu egiten naiz urte-sasoi honetan. Eguna _____ hasten da, eta txoriak ere esnatu egiten dira. Kukuak jotzen duen garaia da. Gainera, zelaiak lorez betetzen dira, eta _____ egiten du. Dena da ederra urte-sasoi honetan.

Hutsuneak betetzeko hitzak eta esapideak

- a) Gaztainak biltzeko
- b) Negua
- c) mara-mara
- d) lorez eta hostoz janzten da
- e) laburragoa
- f) luzatzen
- g) giro epelagoa
- h) hostoz betetzen dira
- i) udaberria
- j) aldakorra

3- Lotu oroitzapenak urtaroarekin - Entzumena

Gure oroitzapenak askotan egoten dira eguraldiari edo urtaro bati lotuta. Entzungo dituzun testigantzetan, bakoitzak urtaro bati lotutako oroitzapenak kontatuko ditu.

Entzun aurretik, irakurri testigantza hauek. Bakoitza zein urtarorekin ote dago lotua? Ariketa egin ondoren, entzun eta alderatu zure erantzunak. Ea asmatzen duzun.

| | NEGUA | UDABERRIA | UDA |
|--|-------|-----------|-----|
| Gogoratzen dut nola elkartzen gin baserrian belar-lanak egiteko. | | | |
| Umetan, hilabetez edo Frantziara joaten nintzen. | | | |
| Gogoan dut nola egoten ginen kukua entzuteko zain. | | | |
| Urte-sasoi honetan badaki euri-zaparrada galantak botatzen. | | | |
| Gogoan dut Jacako kanpin batera joaten ginela. | | | |
| Bilboko uholde ospetsuak izan zirenean... | | | |
| Lehendabiziko aldiz elurretara nire lehengusuekin joan nintzen | | | |

4- Testuak osatu aukera egokiarekin - entzumena

Kaleko jendeari inkesta bat egin diote gustukoak eta ez gustukoak dituzten urtaroei buruz. Entzun zer kontatu duten, eta, ondoren, eman dituzten erantzunak osatuko dituzu.

- Mainerri _____ gustatzen zaio. Batetik, egunak luzeagoak direlako, eta bestetik, urtaro horretan _____ delako.
- Aneri izugarri gustatzen zaio _____. Eta horrek animoak ematen dizdio.
- Anderri asko gustatzen zaio _____. Urtaro horretan kolore biziak daudelako eta eguraldi ona egiten duelako. Anderrek _____ sentitzen du urtaro horretan.
- Joni asko gustatzen zaio berandu arte _____.
- Aneri _____ ez zaio batere gustatzen, baserriko lanak ezin direlako egin. Gainera, egunak _____ dira, eta horrek tristura handia ematen dio.
- Mainerri udan itsasoan edo errekan bainatzen da, eta askotan _____. Gainera, lagunekin gehiago elkartzen da.

Aukerak

- a) Etxetik kanpora ibiltzekoa
- b) Udaberria
- c) ohean geratzea
- d) mendi-bueltak ematen ditu
- e) Negua
- f) Bizipoza
- g) Uda
- h) natura nola esnatzen den ikustea
- i) laburragoak eta ilunagoak

5- Osatu aditz-laguntzaile zuzenarekin

Entzun dituzun testigantza-zati hauek irakurri, eta aukeratu kasu bakoitzean aditz egokia, aspektua kontuan hartuta. Ariketa egin aurretik, irakurri beheko azalpen eta adibideak, eta erreparatu testuan erabiltzen den aditz-aspektuari. Testuak moldatuak daude.

LEHENALDI BURUTUA: zer gertatu zen kontatzeko

Esanahia: Ekintza une edo garai konkretu horretan kokatzen dugu.

- Han ibili ginen lokatzak kentzen
- Elurretara nire osaba eta lehengusuekin joan nintzen

IRAGAN BURUTU GABEA

Esanahia: Ekintza hori maiztasun jakin batekin gertatu zela adierazten du(egunero, ia beti, astero...).

- Hilabetez edo Frantziara joaten ginen.
- Urtero gereziak biltzen genituen.

ANE.- Gogoratzen ditut udaberriarekin lotutako oroitzapenak. Nola (gu) _____ (elkartu ginen / elkartzen ginen) baserriko lanak egiteko, nola egoten ginen kukuak jotzeko zain, nola _____(gustatzen zitzaigun/gustatu zitzaigun) gereziak jatea. Gure auzoan gainera, artzain bat bizi zen, eta beti hantxe _____(egoten ginen/egon ginen) arkumeei begira.

ARANTXA.- Pasadizoak? Ba, umetan, 11 urte nituenean, uda guztietan, hilabetez edo Frantziara _____ (joan ginen/joaten ginen), etxetik kanpo familia batekin hilabete pasatzera. Hasieran oso gogorra _____(egin zitzaidan/ egiten zitzaidan), baina oso oroitzapen onak utzi zizkidan, era berean.

JON.- Urte hartan, Bilbon euri-zaparrada galantak bota zituen, eta Goierri ere han _____ (ibiltzen ginen/ibili ginen) lokatza kentzen. Euri asko egin zuen, eta ura igogailuraino igo zen, eta handik gora ere bai.

ANDER.- Gogoan dut udako oporretan Jakako kanpin batera joaten ginela Seat 850 batean: umez eta trastez beteta. Gogoan dut nola _____ (egiten genuen/egin genuen) kantuan, nola joan ginen han-hemen geratuz... Urte horietan haurrek ere oso ondo _____ (pasatu zuten/ pasatzen zuten), eta eguraldi ona egiten zuenean, bertako errekan _____ (bainatzen

ginen/ bainatu ginen) denok eta ondoren, ondoko herrira joaten ginen kanpineko beste familiakoekin afaltzera. Oroitzapen ederra, benetan.

6- Idatzi zure oroitzapenei buruz

Idatzi urtaro bati lotutako pasadizo bat edo dituzun oroitzapenak. Nahi baduzu, erabili beheko gidoia eta saiatu denborazko horiek erabiltzen. Hori bai, pasadizoan ez duzu urtaroa aipatu behar. Horren orde, erabili: urte-sasoi horretan, garai horretan, urtaro horretan... Irakurtzen duenak zein urtaroz ari zaren asmatu behar du.

GIDOI-PROPOSAMENA

- Ze eguraldi egiten zuen eta zenbat urte zenituen?
- Norekin eta non zeunden?
- Zer gertatu zen egun horretan?
- Nola sentitu zinen?...

Transkripzioak

3- Lotu oroitzapenak urtaroarekin

AURKEZLEA.- Eta bukatzeko, galdera hau egin diegu: urtaro bati lotutako pasadizo bat kontatuko al diguzu? Ea zer dioen Anek

ANE.- Ba, gaur egun geroz eta gehiago gogoratzen ditut udaberriarekin lotutako oroitzapen eta pasadizoak: nola elkartzen ginen baserrian belar-lanak egiteko, nola egoten ginen kukua entzuteko zain, nola gustatzen zitzaigun gereziak jatea. Gure auzoan gainera, artzain bat bizi zen eta han egoten ginen umetan arkumeei begira, pozez txoratzen.

AURKEZLEA.- Eta Arantxak hauxe kontatu digu:

ARANTXA.- Ba, pasadizoak? Bururatzen zaidana da, gaztetan, beno, gaztetan, edo umetan esango dut, ze lehenengo aldia 11 urte nituela izan zen. Udan, hilabetez edo Frantziara joaten nintzen, eta pues, etxetik kanpo hilabete pasatzea beste familia batekin, hasieran oso gogorra egin zitzaidan baina oso oroitzapen onak utzi zizkidan, era berean...

AURKEZLEA.- Jonek, berriz, pasadizo hau kontatu digu.

JON.- Udan ere badaki euri-zaparrada galantak botatzen, eta Bilboko uholde ospetsuak izan zirenean, Gipuzkoako goierrin ere han ibili ginen lokatzak kentzen kaleetan. Gure etxean igogailua hartzeko 6 bat eskailera igo behar dira, eta ura igogailuraino igo zen, handik gora ere bai.

AURKEZLEA.- Entzun-entzun zer kontatu diguten Anderrek eta Mainerrek.

ANDER.- Gogoan dut udako oporretan Jacako kanpin batera joaten ginela Seat 850 batean: umez eta trastez beteta. Nola egin genuen kantuan, nola joan ginen han-hemen geratuz. Oroitzapen politikak, benetan.

MAIDER.- Ba, begira, lehendabiziko aldiz elurretara nire osabarekin eta lehengusuekin joan nintzen. Aldapatxo bat jaisteko lera batean jarri eta errekatxo batera erori nintzen lehenengo hamar minutuak pasatu baino lehen. Blai egin nintzen, eta hotzez dardarka, auto barnean sartuta eman nuen goiz osoa.

4- Testuak osatu aukera egokiarekin

AURKEZLEA.- Egun on denoi! Azkenean iritsi zaigu udaberria, eta kalera ateratzea pentsatu dugu jendeari urtaroei buruz zer pentsatzen duen galdetzeko. Hemen bildu ditugu lagun batzuk galdera batzuei erantzuteko. Hemen ditugu Mainer, Ander, Ane eta Jon. Ea zer kontatzen diguten. Beno, beno, Mainerrekin hasiko gara. Aizu, zuk ze urtaro duzu gustukoen eta zergatik?

MAIDER.- Ba niri uda gustatzen zait. Eguraldi ona egiten du normalean, egunak luzeak dira eta opor-sasoiarekin lotzen dut. Libreago ibiltzeko urtaroa izaten da, etxetik kanpora ibiltzekoa. Gutxiago estresatzen zara udan, eta eguraldiak gauza desberdinak egiteko aukera ematen dizu.

AURKEZLEA.- Ea zer dioen Anderrek.

ANDER.- Izugarri gustatzen zait udaberria: eguraldi ona, eguzkiaren argia, kolore biziak naturan, berdea eta urdina, batez ere. Bizipoza sentitzen dut urtaro horretan, eta animatu egiten naiz.

AURKEZLEA.- Eta Anek haxe erantzun digu:

ANE.- Ba, niri asko gustatzen zait natura nola esnatzen den ikustea. Ziklo berri baten atarian gaudela sentitzen dut eta horrek animoak ematen dizkit kanpoan denbora gehiago pasatzeko. Inguruan jendea ere ez al da animatuago ikusten?

AURKEZLEA.- Beste galdera hau ere egin diegu: eta zer egitea gustatzen zaizu behien urtaro horretan? Entzun Mainerren erantzuna:

MAIDER.- Ba, lagunekin gehiagotan elkartzen naiz, itsasoan edo errekan bainatzen naiz eta mendi-bueltak sarri ematen ditut. Terrazetan esertzen naiz denbora-pasarako, lagunekin zerbait hartzeko edo jateko.

AURKEZLEA.- Eta Jonek?

JON.- Ba, goizeko hamarrek arte ohean geratzea. Hori bai ederra!

AURKEZLEA.- Eta gutxien-gutxien zein da gustatzen zaizuna?

ANE.- Gutxien gustatzen zaidan urtaroa, ba, negua, ze neguan ezin izaten ditut baserriko lan horiek eta egin. Gainera, egunak laburragoak eta ilunagoak dira eta horrek e tristura ematen dit. Beti etxe zuloan sartuta.

JON.- Urte-sasoia baino gehiago, azaro-erditik Aurrera edo arratsaldeko seietarako iluntzen hasten denean. Horixe da gutxien gustatzen zaidana. Tristura ematen dit.

ANDER.- Udazkena gustatzen zait gutxien, udaren bukaera delako. Eguzki-ordu gutxiago izaten dugu, hoztu egiten du, etxe barrura sartzen gara.

ERANTZUNAK

2- deskribapenak osatu

lorez eta hostoz janzten da

aldakorra

gaztainak biltzeko

hostoz betetzen dira

negua

laburragoa

mara-mara

udaberria

luzatzen

giro epelagoa

4-ERANTZUNAK

Uda

Etxetik kanpora ibiltzekoa

Natura nola esnatzen den ikustea

Udaberria

Bizipoza

Ohean geratzea

Negua

Laburragoak eta ilunagoak

Mendi-bueltak ematen ditu

5- Aditz -laguntzaileen erantzunak

Elkartzen ginen

Gustatzen zitzaigun

Egoten ginen

Joaten nintzen

Egin zitzaidan

Ibili ginen

Egin genuen

Pasatzen zuten

Bainatzen ginen